



EBAZPENA, 2024KO MAIATZAREN 20KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EBAZTEN DA 2024-2025 IKASTURTERAKO OSASUN ARRAZIOIAK DIRELA ETA, ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETEN BEHIN-BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2024KO OTSAILAREN 9KO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. artikuluan hau dio:

«Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.

Era berean, salbuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonari, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.

Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez».

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, osasun arrazoi larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik 2024-2025 ikasturterako deialdia argitaratu zen.

2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren zazpigarren atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak Balorazio-batzordeak baloratuko ditu.

Era berean, ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia ebatziko du dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta eta interesdunek egindako alegazioak aztertu ondoren.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 106. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitaratzea Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren Ebazpena, 2024-2025 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduak heren bateko murrizketak baimentzea behin betiko ebazten duena. Deialdia 2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Argitaratzea ebazpen honen I. eranskina. Eranskin horretan 2024-2025 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduak heren bateko murrizketak ageri dira.

Hirugarrena.- Argitaratzea ebazpen honen II. eranskina. Eranskin horretan ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazoiak ageri dira.

Laugarrena.- Zerbitzu-eginkizunetarako eskaera ukatu zaien pertsonen ezezkoaren arrazoiak ezagutu ahal izango dituzte, eskaera aurkezteko erabili zuten aplikazio beraren bitartez. Horretarako, berriro gaituko da *Hezigunea* ingurunean.

Bosgarrena.- Egiteko akatsengatik edo akats materialengatik alegazioak egiteko epean edukiari buruzko erreklamazioa aurkeztu dutenek, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu behar dute, dagokion idazkia bitarteko telematikoen bidez aurkeztuz.

Seigarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera, hurrengo kasu honetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean



eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea eta eskatzaileak bere behin betiko destinoko ikastetxean eskatzen duenean zerbitzu-eginkizuna.

Beraz, 1 eta 4 modalitateetarako emandako zerbitzu-eginkizunek ez dute ziurtatzen lanpostu zehatz bat esleitzea, baizik eta ikasturte hasierako esleipenean parte hartzeko aukera ematea.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

Zazpigarrena.- Deialdi honen bidez emandako zerbitzu-eginkizuna lortzen duten pertsonak lekualdatze-lehiaketaren behin-behineko ebazpena kontuan hartu beharko dute eta bata edo bestea aukeratu. Maiatzaren 31az geroztik jasotako uko egiteei erantzuteko, lekualdatze-lehiaketaren behin-behineko eta behin-betiko emaitzak desberdinak izan beharko dira kasu bakoitzean. Adierazitako epean uko egiten ez bada, osasun arrazoiengatik emandako zerbitzu-eginkizunaren alde egiten duela ulertuko da, eta, ondorioz, lekualdatze-lehiaketan esleitutako plaza 24-25 ikasturte-hasierako esleipenetan eskainiko da.

Zortzigarrena.- Argitarapena webgune honetan egingo da: https://www.euskadi.eus/web01-a3hklair/eu/contenidos/informacion/ccss_d_24_25_convocatorias/eu_def/index.shtml

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 20a.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA